

Arautegia

- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa AUSTARRI Mendi Taldeak antolatzen du eta ez du norgehiagoka izaerarik.
- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa maiatzaren **14**an izango da. Ibilaldia, 48 Kmkoa eta +3200 desnibelegoa izango da.
- Martxaren gehieneko iraupena **12** ordukoa izando da. Gutxieneko denbora **6** ordukoa izando da.
- Martxa, 18 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago.
- Martxa goizeko **7,00etan** hasiko da Zubialde plazatik, bertan ere amaitzeko, 11 tontorretatik pasatuz.
- IBILBIDEA : Zeberio (125m)-Murga(606m)-Piku Bikotx (616m)- Garaigorta (662)-Aibelabe (638)-Arrugaeta (669)-Untzuetza (770)-Artanda (550)-Upo(573)-Tontorrandi (522)-Mandoia (638)-Argiñaoko Atxa (524)- Zeberio (125m.)
- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa, EUSKAL HERRIKO IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN ZIRKUITUan sartuta dago.
- **Izen-ematea:** Apirilaren 5etik Maiatzaren 6ra, <https://www.runedia.com/inscripcion/201629904/> eta <http://austarrimenditaldea.com/zeberio-harana/>. ATERATZEKO EGUNEAN: 6etatik 6,30etara (300 bete ez badira aurretik). Beharrezkoak:izen-abizenak, NAN, Feder. txartela (federatuta dagoena),... Ordainketa: **10** € federatuentzat eta **13** ez federatuentzat; martxako egunean 13-16 €. Ez dira 300 parte-hartzaile baino gehiago onartuko. Dorsalak, goizeko 6etatik 7ak arte eskuratuko dira.
- Ibilbidea behar bezala markatuta egongo da.
- Ibilbidearen zehar, jan eta edan-guneak izango dira: Adaro, Iruaretxeta, Upo,Argiñao eta helmugan.
- Parte hartzaileek ibilaldian zehar jarritako kontrol postu guztietatik igaro beharko dute, eta irteeran jasotako dorsala erakutsi.
- Proba hasitakoan ibilaldia uztea erabakitzen duten parte-hartzaileek iritsi diren azken kontrolean edo 656415597-665735054 telefonoetara deituta eman beharko dute hartutako erabakiaren berri.
- Ibilbidea bukatzen duten guztiei diploma eta oparitxo bana emango zaie.
- Zubialdeko Frontoian dutxa hartu ahal izango da.
- Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen parte-hartzaileei proban gerta lekizkiekeen istripuak. Partaideek, bere aldetik, uko egiten diote antolakuntzari erreklamaziorik edo kalteordainketarik eskatzeari.
- Federatuta egotea gomendatzen da.
- Anbulantzia gehi osasun mediku serbitzua izando da ibilbidearen zehar.
- Antolakuntzak, arrazoi klimatikoak direla-eta hala iritzita, proba bertan behera utzi edo ibilbidea aldatu ahal izango du.

Izena eman duen pertsona oro jakitun da inskripzio formularioan ageri diren datuak datu pertsonalen fitxategien barne geratuko direla eta antolakuntzak soilik erabili ahal izango dituela ibilaldian parte-hartzaileen kudeaketa egoki egin ahal izateko eta AUSTARRIK bere Web orrian partehartzaileen zerrenda argitaratu ahal izateko. Informazio hau ematean, parte-hartzaileak aipatutako datu-tratamendua egiteko onespena ematen du.

Izena emateak araudi hau onartzea dakar.